

BERGARAKO UDALA

UDALTZAIN KIDEGOKO OINARRIZKO ESKALAKO AGENTE-PLAZAK

AZTERKETA PSIKOTEKNIKOAREN INGURUKO INFORMAZIOA ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Esp. 2022LAAU0014

2023ko AZAROAREN 15ean egin beharreko probak, hauen inguruko informazioa eta ebaluazio irizpideak ondoren jasotakoak dira:

➤ **LEHENENGO PROBA: PROBA PSIKOTEKNIKOA**

- **Probaren deskribapena:** Test bat da, 4 ariketa ditu, eta ariketa bakoitzak 16 item. Item bakoitzak lau erantzun-aukera izango ditu, eta horietatik bat bakarrik izango da zuzena. Horrenbestez, testak 64 item izango ditu. Horien bitartez izangaien arrazoitze, hautemateko, espaziorako eta hitzezko gaitasunak ebaluatuko dira. Itemak honela egongo dira banatuta:

a) **Arrazoitze ariketa:**

Deskribapena: 16 item, 4 erantzun-aukerarekin. Honela definitzen da: Diagramak, eskemak eta marrazkiak ulertzeko, erlazionatzeko, maneiatzeko, kodetzeko eta deskodetzeko gaitasuna da, horien esanahiaren arabera erabakiak hartuz. Trebetasun honi esker, erlazio abstraktu-espazialak eta eredu geometrikoak identifikatu ditzakegu.

b) **Hautemateko gaitasunen ariketa:**

Deskribapena: 16 item, 4 erantzun-aukerarekin. Honela definitzen da: Prozesu aktibo bat da eta horren bidez burmuinak jaso egiten du begiak atzematen dituen estimuluaren informazioa, informazio hori eraldatu eta kanpoko errealitatearen birsorpena lortzen du. Birsortze hori egiteko, behatutako errealitatea hartu eta alde aurretiko ezagutzekin alderatzen da, errealitatearen interpretazio bat lortu ahal izateko.

c) **Gaitasun espazialen ariketa:**

Deskribapena: 16 item, 4 erantzun-aukerarekin. Honela definitzen da: Espazioa behar bezala hautemateko gaitasuna da eta horren arabera jarduketa eraginkorrak egitekoa. Tamaina-, distantzia-, norabide- eta forma-erlazioak ezartzeko trebetasuna da, bai eta espazioan irudiak sinbolikoki maneiatzeko erraztasuna ere.

d) **Hitzezko gaitasunen ariketa:**

Deskribapena: 16 item, 4 erantzun-aukerarekin. Honela definitzen da: Idatziz aurkeztutako kontzeptuak erabili, ulertu, erlacionatu, aztertu eta sailkatzeko gaitasuna da. Emaitzarik nabariena ahozko eta/edo idatzizko produkzioan gauzatzen da.

- **Probaren zuzenketa:** Zuzentzerakoan, honako irizpide hauek aplikatuko dira:
 - Okerreko erantzun bakoitzak balioaren 1/3eko zigorra izango du. Erantzun gabeko galderak eta bi aldiz erantzundakoak (bikoitzak) ez dira zigortuko.
 - Proba zuzentzerakoan, izangaien nortasuna babestuta egongo da, era anonimoan.
 - Ariketaren azken puntuazioa honela aterako da:
 1. Ariketa bakoitzean lortutako zuzeneko puntuazioa jaso (gehienez 16 puntu; puntu 1 galdera zuzen bakoitzeko, betiere egindako akatsak kenduta) eta, hiruko erregela erabiliz, 0tik 30 puntura bitarteko puntuazio bihurtuko da –hori baita oinarriek aurreikusten dutena–.
 2. Hiruko erregelaren ondoren (puntuazioa bihurtu ondoren), ariketa bakoitzean gutxienez 10 puntu lortu beharko dira gai izateko –oinarriek ezartzen duten moduan–.
 3. Aurreko baldintzaz gain, lau ariketen puntuazio bihurtuen baturak gutxienez 60 puntu eman beharko ditu proba gainditzeko.
 4. Deialdiaren oinarrietan honako hau ezartzen da: Hautaketa-sistemaren hurrenkera onari begira, Epaimahai kalifikatzaileak, eskatu beharreko gutxienerako maila kontuan izanik, proba honetan erakutsitako ezagutzamailla eta hautagaien identitatea jakin baino lehen, ariketa bakoitza gainditzeko beharrezko gutxienerako puntuazio-atalasea non jarri erabaki ahal izango du eta akordio hori argitaratuko du. Horrelakoan, ariketa bakoitzeko puntuazioa lortzeko ezartzen du honako formula hau aplikatu behar dela:

$$HAP = (H_{A_{geh}}/2) \times (1 + (PZ - m)/(PZ_{geh} - m))$$

➤ **HIRUGARREN PROBA: PROBA PSIKOTEKNIKOA**

- a) **Nortasun orokorrari buruzko testa:** Izangaiek 217 itemi edo galderari erantzun beharko diete –item bakoitzak 4 erantzun-aukera izango ditu–, eta horien bidez nortasun orokorraren ezaugarriak ebaluatuko dira, bai eta desdoikuntza edo moldagabezia erakusten dituzten adierazleak ere. Ariketa egiterakoan, item bakoitzean erantzun-aukera bakar bat jarri beharko da. Testak 21 eskala ditu eta irudi-distortsioaren adierazle bat. Hona hemen eskala horiek:

- ***DOIKUNTZA EMOZIONALA***

EST Estresarekiko tolerantzia

AUT Autokontrola

SEG Norberarenganako segurtasuna

FRU Porrotaren eta frustrazioaren gaineko kontrola

- ***DOIKUNTZA PSIKIKOA***

ANS Antsietatea

- DEP Depresioa
- HOS Etsaitasuna
- PAR Paranoidismoa
- HIS Histrionismoa
- **DIS IRUDI-DISTORTSIOA**
- **DOIKUNTZA SOZIALA**
 - AMA Adeitasuna
 - SOC Soziabilitatea
 - ASE Asertibitatea
 - LID Lidergoa
 - EQU Taldean lan egitea.
- **ANTOLAKUNTZA-DOIKUNTZA**
 - SOL Arazoak konpontzea
 - NOR Arauak kontuan hartzea
 - FLE Malgutasuna
 - DEB Betebeharraren zentzua
 - INI Ekimena
 - ORG Planifikatzea eta Antolatzea
 - MOV Mugikortasuna

- **Zuzenketa:** Testa zuzentzeko, hasiera-hasieran testa osatzen duten eskalen zuzeneko puntuazioak lortuko dira. Jarraian, zuzeneko puntuazioak puntuazio-
eskala konparagarri baten arabera barematuko dira (ehunekoak). Jarraian, eskala bakoitzaren (eta irudi-distortsioaren adierazlearen) ehuneko hori 0 eta 1
puntuaren arteko puntuazio batekin baloratuko da, deitutako lanpostuarekiko egokitzapen-maila kontuan hartuta. Deskribatutakoaren arabera, testean
gehienez ere 22 puntu lor daitezke.

21 neurketa-eskaletan eta irudi-distortsioaren adierazlean lortutako puntuaren baturak puntuazio bat ematen du eta, horrela, jarraian zehaztutako hamar egokitzapen-mailak definitzen dira:

FAKTORE EDO ESKALAK (puntuak)	EGOKITZAPEN- MAILAK
>= 21	10
>= 19	9
>= 17	8
>= 15	7
>= 13	6
>= 11	5
>= 09	4
>= 07	3
>= 05	2
< 05	1

Azkenik, egokitzapen-maila horiei esleitzen zaie deialdi-oinarrietan erreferentziako ariketarako emandako puntuazioa, taula honetan ikus daitekeen bezala:

EGOKITZAPEN-MAILAK	AZKEN PUNTUAZIOA
10	60
9	54
8	48
7	42
6	36
5	30
4	24
3	18
2	12
1	6

- **Balorazioa:** 0 puntutik 60ra baloratuko da, eta gutxienez 30 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

Ariketa zuzentzerakoan, izangaien anonimotasuna gordeko da.

- b) **Lan-nortasunari buruzko testa:** Izangaiek test bat egin beharko dute, laneko jardunarekin lotutako portaera-joerak ebaluatu ahal izateko. Test horrek 119 item ditu, eta item bakoitzak 7 erantzun-aukera. Izangaiek ariketa egiterakoan, item bakoitzean erantzun-aukera bakar bat markatuz erantzungo dute.

Testak 15 faktore baloratzen ditu eta desiragarritasun sozialaren adierazle bat.

Baloratu beharreko faktoreak honela banatzen dira: faktore kritikoak eta faktore garrantzitsuak. Hau da:

Faktore kritikoak: Komunikazioa, Diskrezioa, Egonkortasun emozionala, Ekimena, Erabakitze gaitasuna, Pentsamendu kontzeptuala, Presioarekiko tolerantzia.

Faktore garrantzitsuak: Asertibitatea, Norberarenganako ezagutza eta segurtasuna, Porrotaren eta frustrazioaren gaineko kontrola, Enpatia, Arazoei aurre egitea eta konpontzea, Talde-espirtua eta lankidetzeta, Integritate pertsonala/etikotasuna, Herritarrekiko orientazioa, Erantzukizuna.

- **Zuzenketa:** Ariketa zuzentzeko orduan, hasiera-hasieran testa eratzten duten alderdiak osatzen dituzten faktoreak eta desiragarritasun sozialaren adierazlea hartu eta horien puntuazio zuzenak jasoko dira. Jarraian, zuzeneko puntuazio horiek barematu egingo dira, horrela faktoreen banaketa (eta desiragarritasun sozialaren adierazlearena) dekatipoen bidez lortzeko (0tik 10era). Ondoren, sortutako dekatipoak baloratuko dira ezarritako lanpostu-profilarekiko egokitzapen-mailaren arabera. Faktore kritiko bakoitza 0 eta 1,833333333 puntuen bitartean baloratzen da. Faktore garrantzitsu bakoitza 0 eta

1,222222222 puntuen bitartean baloratzen da. Desiragarritasun sozialaren adierazlearen eraginez 1,32 puntu arte kendu ahal dira.

Testaren guztizko puntuazioa faktore bakoitzean lortutako puntuazioak batuz lortuko da. Zehazki, guztizko puntuazio horren gehieneko balioa – azaldutakoaren arabera– 22 puntukoa izango da.

- **Balorazioa:** Ariketa 0 puntutik 60ra baloratuko da, eta gutxienez 30 puntu lortu beharko dira gainditzeko. Izangai bakoitzak testean lortutako puntuazioa hartu eta, hiruko erregelaren bidez, oinarrietan adierazitakoa bihurtuko da (0 puntutik 60 puntura).

Ariketa zuzentzerakoan, izangaien anonimotasuna gordeko da.

Begara, 2023ko azaroaren 13a

Epaimahaiko idazkaria

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

PLAZAS DE AGENTE DE LA ESCALA BÁSICA DEL CUERPO DE AGENTES DE LA POLICÍA MUNICIPAL

INFORMACIÓN SOBRE LA PRUEBA PSICOTÉCNICA Y CRITERIOS DE VALORACIÓN

Esp. 2022LAAU0014

Las pruebas a realizar el día 15 DE NOVIEMBRE DE 2023, la información sobre esta y los criterios de valoración son los recogidos a continuación:

➤ **PRIMERA PRUEBA: PRUEBA PSICOTÉCNICA**

- **Descripción de la prueba:** Se propone un test compuesto por cuatro ejercicios con 16 ítems cada uno. Cada uno de los ítems contará con cuatro alternativas de respuesta de las que sólo una será correcta. El test constará, por tanto, de un total de 64 ítems encaminados a evaluar las aptitudes de razonamiento, percepción, espaciales y verbales de las personas aspirantes distribuidos de la siguiente forma:

a) Ejercicio de razonamiento:

Descripción: 16 ítems con 4 alternativas de respuesta. Se define como la capacidad para comprender, relacionar, manejar, codificar y decodificar diagramas, esquemas y dibujos, tomando decisiones en función de su significado. Es la habilidad que permite identificar relaciones abstracto-espaciales y patrones geométricos.

b) Ejercicio de aptitudes de percepción:

Descripción: 16 ítems con 4 alternativas de respuesta. Se define como el proceso activo mediante el cual el cerebro transforma la información de los estímulos que capta el ojo, en una recreación de la realidad externa. Esta recreación se elabora comparando la realidad observada y los conocimientos previos con el fin de proporcionar una interpretación de la realidad.

c) Ejercicio de aptitudes espaciales:

Descripción: 16 ítems con 4 alternativas de respuesta. Se define como la capacidad para percibir correctamente el espacio y llevar a cabo actuaciones eficaces en función del mismo. Es la habilidad para establecer relaciones de tamaño, distancia, dirección y forma, así como la facilidad para el manejo simbólico de figuras en el espacio.

d) Ejercicio de aptitudes verbales:

Descripción: 16 ítems con 4 alternativas de respuesta. Se define como la capacidad para utilizar, comprender, relacionar, analizar y clasificar conceptos presentados por escrito. Su resultado más tangible se materializa en la producción verbal y/o escrita.

- **Corrección de la prueba:** En la corrección, se aplicarán los siguientes criterios:
 - Cada respuesta errónea penalizará a razón de 1/3 del valor. Las preguntas no contestadas y las contestadas dos veces (dobles) no penalizarán.
 - La corrección de la prueba se realizará salvaguardando la identidad de las personas aspirantes, en anónimo.
 - La puntuación final del ejercicio será el resultado de:
 1. Convertir la puntuación directa alcanzada en cada uno de los ejercicios (un máximo de 16 puntos, 1 punto por cada pregunta correcta, menos los errores cometidos) a una puntuación de 0 a 30 puntos, que se les otorgan las Bases, mediante una regla de tres.
 2. La puntuación mínima obtenida en cada ejercicio tras la regla de tres (puntuación convertida) deberá ser 10 puntos, tal y como establecen las Bases, para resultar apto/a.
 3. Además de la condición anterior, del sumatorio de la puntuación convertida de los cuatro ejercicios deberá obtenerse una puntuación mínima de 60 puntos para superar la prueba.
 4. En las Bases de Convocatoria se establece que en aras al buen orden del sistema selectivo, el Tribunal Calificador, teniendo en cuenta el nivel mínimo exigible, el nivel de conocimientos demostrado en esta prueba y antes de conocer la identidad de las personas aspirantes, podrá decidir el umbral de puntuación donde establecer la puntuación mínima necesaria para superar cada uno de los ejercicios y hará público dicho acuerdo. En tal caso, para la obtención de la puntuación de cada uno de los ejercicios establece la aplicación de la siguiente fórmula:

$$PCA = (PC_{max}/2) \times (1 + (PD - m)/(PD_{max} - m)).$$

➤ **TERCERA PRUEBA: PRUEBA PSICOTÉCNICA**

- a) **Test de personalidad general:** Las personas aspirantes deberán responder a 217 ítems con 4 alternativas de respuesta cada uno, orientados a la evaluación de rasgos de personalidad general, así como indicadores de desajuste o inadaptación. Se deberá cumplimentar el ejercicio respondiendo a cada ítem con una única alternativa de respuesta. El test cuenta con 21 escalas y con un indicador de distorsión de imagen. Las escalas son las siguientes:

- **AJUSTE EMOCIONAL**
 - EST Tolerancia al estrés.
 - AUT Autocontrol.
 - SEG Seguridad en sí mismo.
 - FRU Control sobre fracaso y frustración.
- **AJUSTE PSÍQUICO**
 - ANS Ansiedad.

- DEP Depresión.
- HOS Hostilidad.
- PAR Paranoidismo.
- HIS Histrionismo.

- **DIS DISTORSIÓN DE IMAGEN**

- **AJUSTE SOCIAL**

- AMA Amabilidad.
- SOC Sociabilidad.
- ASE Asertividad.
- LID Liderazgo.
- EQU Trabajo en equipo.

- **AJUSTE ORGANIZACIONAL**

- SOL Solución de problemas.
- NOR Atención a las normas.
- FLE Flexibilidad.
- DEB Sentido del deber.
- INI Iniciativa.
- ORG Planificación y Organización.
- MOV Movilidad.

- **Corrección:** La corrección del test se inicia con la obtención de las puntuaciones directas de las escalas que componen el test. A continuación, las puntuaciones directas se bareman de acuerdo a una escala de puntuación comparable (centiles). Seguidamente, el centil de cada escala (y del indicador de distorsión de imagen) se valora con una puntuación entre 0 y 1 punto, atendiendo al grado de ajuste al puesto convocado. Según lo descrito, la puntuación máxima que se puede obtener en el test es de 22 puntos.

El sumatorio de los puntos obtenidos en las 21 escalas de medición y en el indicador de distorsión de imagen distribuye una puntuación, definiendo a su vez, los diez niveles de adecuación que se detallan a continuación:

FACTORES O ESCALAS (puntos)	NIVELES DE ADECUACIÓN
>= 21	10
>= 19	9
>= 17	8
>= 15	7
>= 13	6
>= 11	5
>= 09	4
>= 07	3
>= 05	2
< 05	1

Finalmente, se adjudican a los niveles de adecuación la puntuación otorgada en las bases de convocatoria para el ejercicio de referencia, tal y como se refleja en la siguiente tabla:

NIVELES DE ADECUACIÓN	DE	PUNTUACIÓN FINAL
10		60
9		54
8		48
7		42
6		36
5		30
4		24
3		18
2		12
1		6

- **Valoración:** Se valorará de 0 a 60 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 30 puntos para su superación.

La corrección del ejercicio se realizará guardando el anonimato de las personas aspirantes.

- b) **Test de personalidad laboral:** Las personas aspirantes deberán cumplimentar un test dirigido a evaluar tendencias de comportamiento relacionadas con el desempeño en el trabajo. Dicho test está compuesto por 119 ítems con 7 alternativas de respuesta cada uno. Las personas aspirantes deberán realizar el ejercicio respondiendo a cada ítem señalando una única alternativa de respuesta.

El test valora 15 factores y dispone de un indicador de deseabilidad social.

Los factores a valorar se dividen entre críticos y relevantes. A saber:

Factores críticos: Comunicación, Discreción, Estabilidad emocional, Iniciativa, Capacidad de decisión, Pensamiento conceptual, Tolerancia a la presión.

Factores relevantes: Asertividad, Conocimiento y seguridad en sí mismo, Control sobre el fracaso y la frustración, Empatía, Enfrentamiento y resolución de problemas, Espíritu de equipo y cooperación, Integridad personal / eticidad, Orientación al ciudadano, Responsabilidad.

- **Corrección:** La corrección del ejercicio se inicia con la obtención de las puntuaciones directas de los factores e indicador de deseabilidad social que conforman los aspectos que componen el test. A continuación, las puntuaciones directas se bareman para obtener una distribución de los factores (y del indicador de deseabilidad social) mediante decatipos (de 0 a 10). Posteriormente, se procede a valorar los decatipos resultantes según su grado de ajuste al perfil establecido del puesto de trabajo. Cada uno de los factores críticos es valorado entre 0 y 1,833333333 puntos. Cada uno de los factores

relevantes es valorado entre 0 y 1,222222222 puntos. El indicador de deseabilidad social puede restar hasta 1,32 puntos.

La puntuación global en el test se obtiene del sumatorio de puntuaciones obtenidas en cada uno de los factores. En concreto, el valor máximo de esa puntuación global será, según lo expuesto, de 22 puntos.

- **Valoración:** El ejercicio se valora de 0 a 60 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 30 puntos para su superación. La puntuación obtenida en el test por cada aspirante se transformará en la referida en las bases (de 0 a 60 puntos) mediante una regla de tres.

La corrección del ejercicio se realizará guardando el anonimato de las personas aspirantes.

Begara, 13 de noviembre de 2023
La secretaria del tribunal



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUcb807c02-d1d5-41d0-a913-7c34f813fcdb**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>